



Azalpena

TXIRRINDULARI IBILALDIAK

Baimenaren xedea: Bidea erabiltzea antolatutako txirrindularitza-martxak egiteko. Martxa horiek kirol-, turismo- eta kultura-xedek dituzten ariketa fisikoak izan behar dute, eta 50 txirrindulari baino gehiagok hartu behar dute parte.

Organo eskuduna: Trafikoko lurralde-arduradunak, proba osoa EAEn barruan egiten bada, eta hasi ere lurralde-eremu horren barruan hasten bada.

Izapidetzea:

1. Dagokion trafikoko lurralde-arduradunari zuzendutako baimen-eskaera. Martxa antolatuko duen erakundeak aurkeztu beharko du baimen-eskaera hori gutxienez proba egin baino 30 egun lehenago.
2. Dagokion tasa ordaintzea. Ordainketa-gutunarekin egingo da, Interneten bidez (www.euskadi.net/nireordainketa), Zuzenean-en bulegoetan edota finantza-erakunde hauen bulegoetan:
 - Kutxabank (Kutxa, BBK, Caja Vital Kutxa)
 - Caja Laboral Ipar Kutxa
 - BBVA
 - Santander
 - **Sabadell** Guipuzcoano
 - "la Caixa"
 - Bankia
 - Bankoa

Nahitaezko txosten lotesleak:

- Bidearen titularra.
- Ertzaintza.

Ebazpena: Ebazpena eman eta eskatzaileari jakinaraziko zaio.